

Antton Egiguren

APAIZA

Demokraziak eta demokraziak

Ekainaren 10ean, Belgikako Legebiltzar Federalerako 150 legebiltzarkide eta senaturako 40 ordezkari hautatzeko hauteskundeak izan ziren. Ohikoa denez alderdi politiko guztiak irabazle irten ziren oihuka. Orduz gero, azaroa aurrera doan arren, alderdi politikoek ezin izan dute agintzeko akordio orokor bat itundu.

Hainbeste arazoren artean, Bruselas-Halle-Vilvoorde (B-H-V) deritzona dago.

Belgika Europako bi kultura handien artean kokaturik dago: zelta-germanikoa eta latin kulturen tartean alegia. Herrialde tipia izan arren (30.528 km²) nazioarteko hainbat gerla ezagutu duen lurraldea da: Europako Gudalekua deitu izan zaio.

Kultur aniztasuna bertan erabiltzen diren hizkuntzetan nabari da: %60k holandesa (Flandrian kokatua) hitz egiten du, eta %40k frantsesa –Walonian kokaturik eta bertan talde ttipi batek alemana ere hitz egiten du—. Beraz, hiru hizkuntza ofizial elkarrekin bizi dira.

Belgika sortu zenetik (1830ean) gaur arteraino, hainbat arazo handietako bat hizkuntzarena da. Hizkuntza arazoak konponitzeko 1962an konstituzio bat onartu (%75ak onetsia) eta lurralde osoa hizkuntza mugekin (*taalgrenzen*) egokiturik geratu zen, lau herrialde nabarmen osatuz: holandesa, frantsesa, alemana eta Bruselan –inguruko hemeretzi udalerriek–



DANI BLANCO

elebitasuna. Probintzia eta udalerrri guztiek lau eskualde hauetako zati izan behar zuten. Aldaketarik izatekotan, hizkuntza eskualde bateko %75aren gehiengoz bakarrik buru zitekeen. Baina honek ez zuen auzia zuzendu.

Denborarekin, Flandriako bilakaera ekonomikoa zela medio, Walonia aldeko jendeak iparraldera eta Brusela inguruko udalerrietan kokatuz batera, euren hizkuntza –frantsesa hain zuzen– Flandriako lurraldean ere zabaldu ahal izateko “erreztasunak” (*faciliteiten*) eskatu zituzten. Hauek onartuak eta 1970eko Konstituzioan legez jasoak izan ziren. Baina alderdi politikoek ezin izango zuten ez hauteskunde kanpainarik egin ezta botorik jaso ere Flandrian bizi ziren waloinarregandik.

Denborarekin Flandriara igaro ziren waloniatarren kopurua, jatorrizkoak baino are handiagoa bilkatu, Waloniako alderdi politikoek Flandriako alderdian kanpaina politiko egin dute eta botoak jaso dituzte. Flandriak egoera hau gaitzetsi eta konponbide bat eskatu du joan den hogeitabost urte hauetan: lege arauak bete eta benetako federalismoaren praktikan jartzeko. Walonak horren aurka joanez, Flandriak Belgikaren zatiketa oihukatuz aldarrikatzen dutela desinformatzen gaituzte prentsan. Baldin islamdarrek gure herrietan inoiz gehiengoa lortzen badute, arabiarrak izan behar ote du hizkuntza ofiziala? ■



Baldin islamdarrek gure

herrietan inoiz gehiengoa

lortzen badute, arabiarrak

izan behar ote du

hizkuntza ofiziala?



TXANDAN

Sustrai Colina



Ni bizi naizen herrian konstruktoreak ez dira korbata eta

amerikanarekin ibiltzen, ez daukate Ferrari edo Porche-rik, ez dira jakuzidun txaletetan bizi. Kanean gurutzatuz gero bi hitz eskainiko dizkizute, zure lagunak direla sinetsiaraziko. Ez diezu sekula antzemango milioi bateko irabazia ala zuloa egin duten, ez diezu sekula antzemango zertan dabilzan.

Ni bizi naizen herrian baserritarrak dira konstruktore. Euren baserria berritzeko orduan ezagutu zuten eraikuntza mundua, auzokoarena berritu zuten gero,

Bizi naizen herrian II

eta ganadua gutxitu ahala sobratzen zaizkien lur-sailetan etxe-multzoak eraikitzea dedikatzen dira orain.

Ni bizi naizen herrian oso pertsona errespetatuak eta errespetagarriak dira. Ez die inork etxebizitza garestiak –eta kanpotarrei– saltzea leporatzen. Ez die inork baserritarraren biserapean jasotako subentzioa konstruktorearen mailetan sartu izana aurpegiratzen. Alderantziz, eurak eta euren lagunak hautatzen dituzte zinegotzi.

Ni bizi naizen herrian konstruktoreena da kritika eraikitzailea. ■